

**13/2024 TXOSTENA, URRIAREN 3KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU PROIEKTUA, ONGIZATEA, GAZTERIA ETA ERRONKA
DEMOGRAFIKOAREN SAILEKO EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA
EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) 2. artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra honako sail hauetan antolatzen da:

- a) Kultura eta Hizkuntza Politika.
- b) Ekonomia, Lana eta Enplegua.
- c) Ogasun eta Finantzak.
- d) Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua.
- e) Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna.
- f) Segurtasuna.
- g) Hezkuntza.
- h) Etxebizitza y Hiriko Agenda.
- i) Osasuna.
- j) Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa.
- k) Mugikortasun Jasangarria.
- l) Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza.
- m) Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa.
- n) Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza.
- o) Justizia eta Giza Eskubideak.

Era berean, 18/2024 Dekretuaren 15. artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua aldatzen duen Lehendakariaren uztailaren 30eko



36/2024 Dekretuaren bidez aldatu ondoren, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailari honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie:

- a. Gazteak eta emantzipazioa.
- b. Erronka demografikoa.
- c. Familia babestea eta lan-bizitza eta familia bateragarri egitea.
- d. Komunitate-garapena. Gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuak.
- e. Familia-bitartekaritza.
- f. Haurrak eta nerabeak. Adingabeen babesa.
- g. Zahartze- eta zaintza-politika.
- h. Askatasun afektibo-sexuala errazteko baldintzak sustatzea. Sexu-aniztasuna.
- i. Migrazioa eta asiloa. Kultura-aniztasuna.
- i bis) Jaurlaritzaren politika proposatu eta gauzatzea erlijio-askatasunerako eskubidea baliatzeari dagokionez, bai eta erlijio-aniztasuna kudeatzea ere.
- j. Boluntarioritza.
- k. Hirugarren Sektore Soziala.
- l. Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
- m. Legeek eta erregelamenduek ematen dizkieten gainerako ahalmenak.

Halaber, zortzigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarriek aurreikusten dute Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila osatuko dutela desagertutako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Politiketako Sailburuordetzako organo eta unitateek eta Lehendakaritzako aurreko egiturako Gazteria Zuzendaritzak; era berean, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailean Zerbitzu Zuzendaritza bat sortuko da. Eta desagertutako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Gaietako Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzako unitateak, baliabide materialak eta giza baliabideak Dekretu horren 15. eta 20. artikuluetan aipatzen diren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko eta Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Zerbitzu Zuzendaritzetan integratuko dira, betetzen dituzten eta atxikita egon daitezkeen funtzioen arabera.

Azkenik, azken xedapenetako lehenengoak ezartzen du, sailburuek, hala badagokio, beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiote lehendakariari, hark onar ditzan, 2024ko urriaren 31 baino lehen. Proiektu horiek sail bakoitzari esleitutako jardun-arlo bakoitzerako Gobernu Programan jasotako helburuei eta programa hori argitu duten irizpideei egokituko zaizkie.

Horretarako, dagokion dekretu-proiektua egitea bultzatu da, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta, horrela, 15. artikuluan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak bete ahal izateko.

2024ko irailaren 17an, Dekretu-proiektuari buruzko txostena egiteko eskabidea egin zion Sail horrek Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honi.

Espediente hori Tramitaguneren —prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren— bidez izapidetu zen, DNCG_DEC_107167/20_01 erreferentziarekin, eta honako agiri hauek jasotzen ditu:

- Dekretu proiektuaren testua.
- Dekretu-proiektuaren arau-eragina aztertzeke memoria.
- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua eta proiektua aldeztatik onartzeko agindua.

Dekretu proiektua horrela osatuta dago: 19 artikulua, xedapen gehigarri 1, xedapen iragankor 2, xedapen indargabetzaile 1 eta 4 azken xedapen.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 2. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, dekretu proiektuak kontratazioaren eremuari eragiten baitio, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzordeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik.

III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Ondoren, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko proiektuan kontratazio publikoarekin lotuta jasotako guztiak transkribatuko dira:

“4. artikulua.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua

[...]

2.- Halaber, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari honako eginkizun hauek dagozkie, besteak beste: [...]

d) Sailaren 1.000.000 eurotik gorako gastuak baimentzea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak.

e) Sailaren kontratazio-organo gisa jardutea, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera, 1.000.000 eurotik gorakoa duten kontratuetan.

Era berean, eta baldintza berberetan, eskumena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duen eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera prestazio jakin bat egitea xede duten negozio juridikoak sinatzeko. [...]”

“6. artikulua.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren zuzendariak

Saileko zuzendariak, oro har, honako eginkizun hauek izango dituzte: [...]

c) Kontratazio-organoei laguntza teknikoa eta materiala ematea eta bultzatzea.

[...]

g) Zerbitzu Zuzendaritzaren koordinaziopean eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean, indarrean dagoen Hizkuntza Normalizatzeko Planaren helburuak definitzea berari dagokion eremuan, eta helburu horiek lortzeko ekimenak garatu eta ebaluatzea, bere Zuzendaritzako zerbitziburuekin batera euskararen kudeaketa integratua eginez.

h) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezartzea eta horien jarraipena egitea Zuzendaritzaren jardun-eremuetan, hala nola: itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako ekitaldi publikoak. Halaber, dagokion arloan, hizkuntza-irizpideak txertatzea kontratazio publikoan eta dirulaguntzen deialdietan. [...]”

“8. artikulua.- Zerbitzu Zuzendaritza



1.– Zerbitzu Zuzendaritzari, organikoki sailburuaren mende, dekretu honek oro har esleitzen dizkion egitekoetz gain, honako hauek dagozkio, dekretu honetan beste organo batzuei esleitzen ez bazaizkie: [...]

c) Sailaren kudeaketa ekonomikoa egitea eta aurrekontua betearazteko faseak izapidetzea. Zerbitzu zuzendariak sailaren 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimenduko ditu. [...]

2.– Zerbitzu zuzendaria izango da honako hauetarako eskumena duen organoa:

a) Kontratazio-espedienteak eta bitarteko propioei eta zerbitzu teknikoei egindako enkarguak izapidetzea.

b) Sailaren kontratazio-organoa gisa jardutea, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera, 1.000.000 eurotik gorakoa ez duten kontratuetan.

Era berean, eta baldintza berberetan, eskumena izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duen eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera prestazio jakin bat egitea xede duten negozio juridikoak sinatzeko. [...]"

"13. artikulua.- Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzako Organoa

1.- Dekretu honek, oro har, esleitzen dizkion egitekoetz gain, honako hauek dagozkio Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzako Organoari: [...]

d) Gizarte-zerbitzuak kudeatzeko itunak eta kontratuak lege honetan eta lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako irizpideekin bat datozela egiaztatzea". [...]

Zentzu honetan, 116/2016 Dekretuaren 30. Artikuluark xedatzen du: "Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoa [...] salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan".

Ondorioz, ahalmen hori erabiliz, dekretu-proiektu horrek kontratazio-organoei buruzko zenbait aurreikuspen jasotzen ditu. Hala, 4.2.e) artikuluan, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuari esleitzen zaizkio kontratazio-organuari dagozkion ahalmenak, 1.000.000 eurotik gorako oinarrizko lizitazio-aurrekontua duten kontratuetan.

Era berean, 8.2.b) artikulua xedatzen du Zerbitzu zuzendariari dagokiola kontratazio-organoa gisa jardutea 1.000.000 eurotik beherako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua duten kontratuetan.



lido beretik jotzen dute 4.2.d) artikulua, sailburuari dagokionez, eta 8.1.b) artikulua, Zerbitzu zuzendariari dagokionez, sailaren gastuak baimentzeko ahalmenari dagokionez.

Era berean, aurretik aipatuak izan diren proiektuaren 4.2.e) eta 8.2.b) artikuluetan, kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak esleitzeaz gain, baliabide propio pertsonifikatuei enkarguak egiteko eskumena jasotzen da, muga kuantitatibo berberekin, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan araututa dagoena.

Batzorde honek beste batzuetan jakinarazi duen bezala, bitarteko propioari egindako enkargua lankidetzara publikoko modu bat da, kontratuzkoa ez den izaera instrumentala duena, eta lizitazioari lotuta ez dauden edukiak dituen, nahiz eta obrei, zerbitzuei eta hornidurei buruzkoak izan, kontraprestazio ekonomikoaren eta kontratatzailearen profileen nahitaz argitaratu beharreko publizitatearen mende, eta kontratu-errekurtsoen auzitegietan errekurritu daitekeena.

Kontratazio publikoaren eremua murrizteak lehiaren eta eraginkortasunaren gaineko arriskuak ekar ditzakeenez, bitarteko propioari egindako enkargua arrazoitzearen mende egongo da, eta honako alderdi hauek islatuko ditu, besteak beste: enkargua egiten duen erakundeak baliabide zuzen nahikorik ez izatea; enkarguaren erakunde hartzailearen egokitasun formala (helburu sozialaren egokitzapena) eta materiala (baliabide egokien nahikotasuna), eta are kudeaketan eraginkortasun-arrazoiak egotea.

Orobat, egokitzat jotzen da enkarguak egiteko eskumena proiektuaren artikuluetan adierazitako organoei esleitzea, kopuru txikia delako, eta horrek koordinazio, sinplifikazio, efizientzia eta eraginkortasun hobea dakar, egingo den kontratazio publikoari dagokionez.

6.h) artikulua bigarren paragrafoari dagokionez, hizkuntza-irizpideak txertatzeko eskumena, berriaz aipatu behar da eskumen hori garatu behar dela indarrean dagoen Gobernu Kontseiluak 2023ko ekainaren 6an onartutako Erabakian adierazitakoaren arabera. Erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartzen dira.

Horrela, goian aipatutako Akordioan adierazten da, besteak beste, EAEko Sektore Publikoak sinatutako kontratuetan, kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko direla,



herritarrei bermatzeko kontratuaren xede diren jarduera edo zerbitzuetarako irispidea dutela erakundeei eskatzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan, bai eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzen dela ere.

Era berean, administrazio-klausula zehatzen pleguetan ezarriko dira hizkuntza-betekizunak, kontratuaren xedearen arabera. Ildo horretan, kontratuaren xedeak bere izaerarengatik eta zerbitzuaren erakunde titularraren ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria beteko du.

Gauzak horrela, herritarrei arreta ematea eskatzen duten kontratuetan edo zerbitzu bat ematea xede duten kontratuetan, kontratuaren preskripzio teknikoetan proportzionaltasun-printzipioa bermatu beharko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera; izan ere, kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotu beharko zaizkie, eta enpresak bere baliabideen edo besteren baliabideen bidez egiaztatu ahal izango ditu.

Kontratua betearazteko baldintzetan, entitate kontratatzailearen eta esleipendunaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko alderdiak sartu ahal izango dira.

Hala ere, gogorarazi behar da hizkuntza-klausulak ezin direla izan eskatzen diren kaudimen teknikoko betekizunen edukiak.

Azaldutako guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, haren edukia txosten honetako jarraibide eta gomendioetara egokitu ondoren.